

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

1259

366/2017 EBAZPENA, otsailaren 24koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Juan Ramón de la Puente Pagola jauna Debabarreneko Erakunde Sanitario Integratuko pertsonaleko zuzendariaren lanpostua betetzeko izendatzen duena.

Debabarreneko Erakunde Sanitario Integratuko pertsonaleko zuzendari lanpostua betetzeko deialdia aztertu da; deialdi hori Zuzendaritza Nagusiaren urtarrilaren 13ko 43/2017 Ebazpenaren bitartez egin zen (2017ko urtarrilaren 30eko EHAA, 20. zk.).

Eskabideak aurkezteko epea amaitu da, eta lanpostu horretan jarduteko hautagaiek aurkeztu dituzten agiriak aztertu dira. Horretaz gain, baldintza profesionalak ere baloratu dira curriculum vitaean jasotako merezimenduen arabera.

Aurkeztutako agiriak aztertuta, Juan Ramón de la Puente Pagola jauna deialdiko lanposturako egokia dela eta bertan jarduteko behar bezalako trebakuntza duela ikusi da.

Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 27. artikuluan xedatutakoarekin bat, ofizioz deklaratu beharko da Osakidetza langile finkoak zerbitzu berezietan daudela, erakunde publiko horretako zuzendaritza-karguren bat betetzeko hautatuak badira.

Hori dela eta, Zuzendaritza Nagusiak

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Juan Ramón de la Puente Pagola jauna Debabarreneko Erakunde Sanitario Integratuko pertsonaleko zuzendari izendatzea.

Bigarrena.– Izendapen honek 2017ko otsailaren 27tik aurrera izango ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkez dakioke Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko otsailaren 24a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA JESÚS GEMMA MÚGICA ANDUAGA.